

## TXILLARDEGI

*Euskera osotuaren beharra* aipatuko dut lehenik. Behar hau behar gorria da: euskera bakar bat lortzeko premia guzizkoa. Negargarria ez balitz, farragarria litzake gure egoera, alde hortatik: gure huntan gaudeño, euskaltzaleok ez gera serio-tan hartzekoak. Arinkeriak ez bestek proposa dezake oraingo hizkera-multzokeriari eustea. Literatura-hizkuntza osatu, ala euskalki guziak hil: hau da gure hautakizuna.

Neuri dagokidanez, berriz ere esango dut bestetan esandakoa: alegia, Euskaltzaindi'k erabakiko duena aldeaz aurretik ematen dudala aintzakotzat, eta nere aha-lean jarraituko eta jarraiaraziko dudala.

Arrisku bat dago, nere ustez, erabaki batzuk harturik ere: erabakiak gero ezagutaraziak ez izatekoa; eta, hori aitzekia, lehengo modura ekitea. Hau gerta ez dedin bide bakar bat somatu uste dut nik: erabakiei zabalkunde handia ematea. Aldizkarietan, euskal ikasguetan, edonolako erakundeetan, erabakiak azaldu behar dira, hortarako ikastaldiak herriz herri antolatuaz esate baterako. Idazleen eskuetan dago erabakien indarra; beraz, eginahalak egingo dira euskal idazleen artean oso bereziki, euskera osotua zabal eta itsats dedin.

*Euskal Idazleen Alkartasuna* aipatuko dut bigarrenik. Beste herritan egin dan bezela, eta Euskaltzaindia'ren eginkizuna ezertan trahatu gabe, oso egokia litzake Alkartasun hau egitea. Ez, nere ustez, idekiegia: Goncourt-Akademia, esate baterako, ohore bat da, eta ez frantsesez idazten dute guzien kopurua. Liburuak eta prentsa-artikuluak ugari eta zentzuz argitara dituztenen artean osatu beharko litzake. Alkar-adituri'k lanegiteko gertu ez daudenak, jakina, Alkartasun hortatik at utzi behar dira: Alkartasuna alkar-tasuna da, eta ez kota bat. Euskal idazle geran guziok dago-gigu Alkartasun hori xehetasunetan zertan datzakean aztertzea.

Eginkizunak, hortara, Euskaltzaindia'ren zuzendaritzapean antola litezke; baiña Idazleek lana bere gain hartuz eta banatuz. Ikastolako liburuak, irakaskintza hutsa dala-ta, gogotik hartu behar ditugu euskal idazle geran guziok. Euskaldunen zerbitzutan jarri behar dugu, eta ez euskaldunak gure zerbitzuko.

*Euskaldun berriez ziñez arduratu-beharra* aipatuko dut azkenik. Euskaldun berri horiek garrez beterik daude, baiñan ez dakite euskeraz, ez dakite ongi batez ere. Uxatu beharrean, bildu egin behar ditugu. Ez, jakina, euskeraren jatorrasuna lardazkatuz; berentzako artikuluak eta lanak prestatuz baizik. On litzake, esate baterako, 3.000 hitzetako hiztegi osotu bat prestatzea eta argitaratzea; eta, astekarietan eta bestetan, mailla hortako sail bat idekitzea. Gauza bera esan behar da euskeraz irakasteko bideez: ondu egin behar dira, ikasleak egiazki euskeraz ikas dezan. Etxe-sail oso bat gertatu behar da azkar, eta beretan doharik hartu euskaldun berriak, hizkuntzaz jabe ditezten erraztasun guziak emanez.

## XABIER GEREÑO

Nire ustez, derrigorrezkoa da Literatura euskeraren batasuna. Orain inoiz baño geyago, izkuntza bat irauteko kultura bidean sartu bear da. Kultura ori idaztien, liburuen bidez lortzen da, ta gure idaztien ediziñoak dialektuetan bananduta egiten badoguz, San Martin'ek oraintsu zabaldu dauan estadistika tamalgarria eukiko dabe ondorena, au da, 30 liburu eskas urtean, eta gañera ale gitxidunak eta nekez saltzen diranak.